

1. IRABAZI ITURRIAK:

Gure sarrerak ordainketa bakarraren bidezko sarrerak izango dira, hau da, bezeroek aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak. Komisioen bitarteko sarrerak izango dira, izan ere gure enpresa bitartekari lana egiten du eta saldutako produktuen komisioetan oinarritzen dira sarrerak. Gainera gure web orrian publizitatea egiteko aukera eskeiniko dugu, horrela beste diru sarrera batzuk izanez.

Gure enpresaren helburua ez da diru mugimendu handia, hau da, bezeroek argi izan behar dute ez dela diru kantitate handiak irabazteko asmoz eratutako enpresa bat. Lortu nahi duguna, erosleen eta saltzaileen kontzientzia da. Erabiltzen ez duten



arropatik etekin bat aterako dute, baina batez ere arropa horren balio ez materialaz ohartzea nahi dugu eta horregatik saldutako produktu bakoitzaren %30-arekin geratuko gara.

Komisio nahiko altua irabaziko dugu batez ere gu egin nahi garelako kargu bidalketa gastuetaz. Beraz, komisio horren diru guztia ez dira sarrerak izango, parte bat inbertituko dugulako.

Arropa saldu nahi dutenei guk ordainduko dizkiegu bidalketa gastuak, izan ere, haiek ez dute dirurik gastatu nahi eta ez litzateke egokia izango. Erosleek, aldiz, haien bidalketa-kostuen ardura hartu beharko dute. Ez dira altuegiak izango, gure funtsezko elkarteen artean bidalketa enpresa bat baitago eta horrek prezioa murriztuko duelako.

Ordainketa moduak interneten bidez izango dira, bai Paypal eta bai Bizzum erabiliz. Aplikazio horietatik ere ordainduko diegu saltzaileei behin haiei dagozkien irabaziak edukita. Horrez gain, banku-transferentziak onartuko ditugu ordainketa modu bezala.

Beraz diru sarrerak komisioetatik aterako dira, baina ez da komisioetatik ateratako diru guztia izango. Hasieran %40 horren erdia inbertituko dugu, baina behin martxa hartuta, komisio horren %75-a etekinak izango dira.